

berria



'Zaldi urdina' antzokietan trostan abiatzeko prest da

ELKARRIZKETA

Ximun Fuchs, antzerkigilea:

«Gure lanaren parte da gure historia jasotzea, eta komunitatean plazaratzea»

KULTURA • 26-27

GAUR HITZA

Pello Senosiain.
«Sadiko hutsak ziren irakasle eta apaiz haiek. Torturatzen gintuzten. Gu sufriaraziz gozaten zuten»



Patxi Azpilikueta.
«Apaizak krudelkeriaz aritzen ziren. Nire kasuan, sexu abusuak baten parte txiki bat izan ziren»



Konfesatokietan isildutakoak argitzen

Nafarroan, pederastia jasandakoak elkartu egin dira Ikastetxe Erljiosuetako Abusuen Biktimak taldean; dozenaka kasu bildu eta salatu dituzte • Artzapezpikutzaren jokabidea deitoratu dute

HARIAN • 2-5

Hamasei asteko guraso baimenik ez da izango haurra haurtzaindegian daukatenentzat

Jaurlaritzak urri erdialdean onartu nahi du guraso baimen berrien araua, eta baldintza batzuen berri eman du • LABek kritikatu egin ditu mugak

EUSKAL HERRIA • 12

JOCELYN BELL BURNER

ASTROFISIKARIA

«Zientzia maskulinoa izan da, ez da egon emakumezkoen proportzio justurik»

BIZI GIRO • 38-39

TORNIKE XENGELIA

KIROLBET BASKONIAKO JOKALARIA

«Euroligan ez gara faboritotzat hartuak, baina onenen artean borrokatuko gara»

KIROLA • 22-23

Euskal presoentzat ongietorri ekitaldiak ez egiteko eskatu du Eusko Legebiltzarrak

EUSKAL HERRIA • 6

Herritar bat «itsu» uzteagatik auzipetu zuten polizia ez diote zigorrik jarri

EUSKAL HERRIA • 8

alparsoro OKINDEGIA

ogjaren egja

ON LINE eskatu eta ordaindu, errenkarik egin gabe

ALDEA

Hemen ogia hasieratik bukaeraraino bertan egiten dugu; ez dugu ogi aurre-errek saltzen.

- Ziurtagiria duten ogi biologikoak
- Harri errota lirin duten ogiak
- Orantza ogia
- Galtxuri (Espelta) ogi biologikoa
- Gluzemia baxua duten ogiak

Kale Nagusia 6 • (Parte Zaharra) DONOSTIA • Tel.: 943-42 10 74
www.galparsorookindegia.eu

Zaldi urdina, ez hain heroikoa

Urriaren 11n estreinatuko dute 'Zaldi urdina' antzerkia, Luhusoko Harri Xuri gelan • Artedrama, Axut eta Dejabu Panpin Laborategia antzerki konpainiek elkarrekin sortu duten laugarren obra da

Joana Ibarra *Luhuso*

1980ko hamarkadan «zaldi zuria», eta orain, berriz, «zaldi urdina». Izena aldatu diote, beti horizan den seinale. Heroina. Tabu baten hausteko eta isilpean den gai baten taulartzeko sortu dute *Zaldi urdina* antzerkia Artedrama, Axut eta Dejabu Panpin Laborategia antzerki konpainiek. Laugarren aldian dute horrelako elkarlana eramaten dutela antzerki baten sortzeko –*Erraustsak*, *Hamlet* eta *Francoren bilobari gutuna* egin dituzte orain arte, obra bat hiru urtero– eta, aldi honetan, drogaren gaiaren inguruan eraiki dute trama. Unai Iturriagarekin eta Igor Elortzarekin idatzirik, Ximun Fuchs da taula zuzendari, Ainara Gurrutxaga zuzendari laguntzaile, eta honako zazpi aktore hauek ariko dira taula gainean: Ander Lipus, Olatz Beobide, Manex Fuchs, Edurne Azkarate, Urko Redondo eta Miren Alkala. Hiru konpainietako zazpi aktore, beraz, eta, orotara, 21 pertsona dabilta horren inguruan lanean.

Atzo goizean aurkeztu zuten antzerkia, Luhusoko Harri Xuri gelan (Lapurdi) eta leku horretan berean egingo dute lehen emanaldia, bihar zortzi, hilaren 11n. Harat hurbildu dira inguruko kolegioetako 140 ikasle, eta antzerkiaren zati bat ikusi ahal izan dute. Hain zuzen ere, antzezlanaren muntatzen izan diren azken bi urte hauetan, antzezleek hainbat egonaldi egin dituzte, eta Ziburuko Piarres Larzabal kolegioan (Lapurdi) egon dira, ikasleak gaiari buruz sentsibilizatzeko eta horren inguruko lan baten eramateko. Egileek azaldu dutenez, ikuskizun horren helburuetariko bat gazteria «hunkitzea» da, eta hurbileko gazteetatik haste, ikastetxeekin harremanak eginez, hezkuntza artistikoaz eta kulturaz arduratu da Arantxa Hiriogoin.

Isilpetik taula gainera

Antzerki horren muntatzeko xedea Justo Arriolak idatzirik *A los pies del caballo* liburuaren irakurketatik abiatu da, Euskal Herriaren drogaren eta zuzenkiago



Zazpi aktore ariko dira taula gainean *Zaldi urdina* antzezlanaren emanaldietan. Irudian, entsegatzen. AINHOA RESANO

heroinaren inguruko ikerketa bat burutu baitu idazleak. Euskal Herriko historia markatu du *zaldi zuriak*, eta 1980ko hamarkadari lotzen bazaio ere, gaur egungo egoerari buruz gogoetaz nahi dute antzezleek. Antzezlanaren aurkezpenean azaldu dutenez, «ikerketa askok [heroina] trafikoaren iturria Guardia Zibilaren kuarteletara eramaten dute».

Hortaz, kontu hori jorratu, eta artearen bidez taularatu dute gaia, hainbat galdera plazaratuz: «Zer eragin ukan du familietan, lagunartean eta bikote harremanetan? Zer eragin du gazterian ametsetan? Zertarako isildu da gertakaria? Zertarako betidanik sentitu da drogaren behar ezinbesteko hau? Miseriatik ihes egiteko? Patua bestelakatzeko? Izarrek besarkatzeko?». Oroitarazi dute antzezlanaren fikzio bat dela, errealitate jakin batetik abiatzen dena, eta hainbat galdera ezarri nahi dituela mahai gainean.

«Droga, berez, batzuetan ematen du hitz egin ezin daitekeen gai



«Obra guztian zehar pertsonaia pila bat agertzen da, eta beraien istorioak elkarren artean gurutzatzen dira»

Edurne Azkarate
Aktorea



«Gure herrian, drogaren ondorioz, drogaren eraginez, esan daiteke belaunaldi bat ere ia desagertu zela»

Ander Lipus
Aktorea

bat dela, eta gure herrian, drogaren ondorioz, drogaren eraginez, esan daiteke belaunaldi bat ere ia desagertu zela. Orduan, galderak planteatzen ditugu», azaldu du Lipusek. Azkaratek, berriz, bere belaunaldia «drogen aurkako kanpainako produktu bat bezala» ikusten du –1993an sortua da–, eta azaldu du «beldur asko» bizitu izan dutela «justu 80ko hamarkadan gertatu izan zenaren ondorioz». Gai minbera errotik hartu, eta naturaltasunez aipatu dute. «Uste dut oso inportantea dela horretaz hitz egitea eta informatua egotea, eta gero bakoitzak hartu behar dio neurria», gaineratu du Lipusek.

Ihesaldia eta bilaketa

Aingeru 17 urteko mutil gazteari gertatutakoaren inguruan pasatzen da istorioa. Techno jaialdi batean, aitzinetik ebatsi duen zaldi urdina saltzen dio beste mutiko bati, baina azken hori gaizki sentituko da, eta koman sartuko da berehala. Aingeruk ihes egiten

du, eta nehorik ez du haren berririk. Polizia laster hasten da Aingeruren bila, baina horren gibelean mundu ilun bat dela ulerturik, Aingeruren familiakoak bere bila hasten zaizkio, polizia ez dezaute berek baino lehen atzeman. «Obra guztian zehar pertsonaia pila bat agertzen da, eta beraien istorioak elkarren artean gurutzatzen dira, guztiak ari direlako Aingeruren bila: bai familia, bai polizia, bai lagunak... Azkenean, herri bat sartzen da bilaketa horretan», azaldu du Azkaratek.

Oholtza betea da, nahasia. Argiek eta musikak giroa markatzen dute, eta antzezleek koroek joko indartzen. Tentsioa heltzen da publikora, bakoitzaren barne borroka –baita herri batenak ere– erakusten dituztelako pertsonaiek. Familia harremanak, beldurrak eta kezkek, minak, galtzeak. Beste eskala batean, Guardia Zibilaren rola, harreman gordeak, interes ekonomiko eta politikoak... jorratzen ditu antzerkiak.

EMANALDIAK

Urriaren 11ko estreinaldiaren ondotik, antzezlaren beste hamai-ka emanaldi egingo dituzte urtea bukatu bitartean —heldu den urterako ere hainbat dituzte lotuak—.

- Urriak 11.** Luhuso, Harri Xuri aretoa (estreinaldia).
Urriak 15-16-18-19. Angelu, Quintau antzokia.
Urriak 23-24-25-26-27. Donostia, Gaztesena.
Azaroak 1. Azpeitia, Soreasu antzokia.
Azaroak 7. Bilbo, Arriaga antzokia.
Azaroak 9. Barakaldo, antzokia.
Azaroak 12. Hernani, Biteri Kultur Etxea.
Azaroak 13-14. Iruñea, Gaiarre antzokia.
Azaroak 15. Oñati, Santa Ana antzokia.
Azaroak 17. Errenteria, Niessen Kulturunea.
Azaroak 19. Gasteiz, Principal antzokia.
Azaroak 22. Gernika-Lumo, Lizeo antzokia.
Azaroak 23. Larresoro, Kultur Gela.
Azaroak 30. Markina-Xemein, pioletakua.
Abenduak 1. Sopela, Kurtzio Kultur Etxea.
Abenduak 13. Hendaia, Mendi Zolan.
Abenduak 20. Lasarte-Oria, Manuel Lekuona antzokia.
Abenduak 21. Donapaleu, Saint Louis Gela.

Road movie euskaldun bat dela diote, espazioan mugitzen baita eta bakoitzaren barne galderak eta barneko mamuak agertzen baitira. Hortaz, pertsonaiak berriak eta publikoa ispilu baten aitzinean jarriak dira, gorde nahi direnak argitan ezartzea beharturik, eta isildutakoak oihukatzen beharturik. Aingeruren desagerterak eta haren erruz —noren erruz?— koman sartutako mutikoaren gaiak bazterrek inarrosen ditu. Kate bukazein bat, zeinetan edozein herritarrek bere burua ezagut dezakeen, denak izan daitezkeelako drogaren alde ilunean aingeru.

«Espero dugu urriaren 11rako publikoari gure ideietan, gure burmuinetan, gure emozioetan, gure bihotzean, gure ariman eduki dugun *Zaldi urdina* eskaintzea, eta publikoa ateratzea euskarazko antzezlaren batetik oso betea eta oso hustua aldi berean», erran du Lipusek. «Azkenean, antzerkia horretarako egiten dugu, herrian eta publikoan eragiteko».

«Mamuak hor dira beti; gaiak atera ezean, berriz gertatzea posible da»

Ximun Fuchs • Antzerkigilea eta obraren zuzendaria

Itziar Ugarte Irizar Luhuso

Ondarroan (Bizkaia) eman zuten *Francoren bilobari gutuna*-ren azken emanaldia, duela bi urte. Eta gau hartan bertan, antzezlaren berrirako gaia proposatu zuen Ximun Fuchsek (Larabale, Nafarroa Beherea, 1974): drogek Euskal Herrian irekitako zauria. Bi urte pasa igaro dituzte ideia marmitzen, guztia idazten, eta azken bi hilabete pasatxo daroma Fuchsek aktore taldea oholta gainean zuzentzen, Ainara Gurrutxaga duela zuzendari-laguntzaile. Lan guztia jendaurrean estreinatzeko astebeteren faltan, sentimendu zurrumbilo batean dabilela dio.

Francoren bilobari gutuna aurreko obran memoria historikoz aritu zineten. Oraingoan ere bai, baina hurbilagora jo duzue. Bietan, orainetik begirata.

Beti kontatzen dugularik zerbait, gaurko garaia kontatzen dugu. Nahiz eta *Francoren bilobari gutuna* obran frankismoaz aritu, galdera zen nola eramaten ditugun garai hartako traumatismoak gaur gurekin. Oraingoan, drogarekin istripu bat gertatzen da, eta horrek hainbat mamu pizten ditu, 1980ko hamarkadaraino doazenak. Hori da Euskal Herrian bizi izan den azken sarraskia. Historia hurbila da, eta euskal gatazka-karen kontakizunetan ez da aipatzen. Familien kontu uzten da. Alta, badira herri batzuk non ia belaunaldi osoak desagertu diren. Aterabiderik gabeko karrika batean joan balira bezala, eta kito. Orduan, guk berriz ateratzen dugu gaia. Gure lanaren parte da; gure historia jasotzea eta komunitatean plazaratzea.

Gaur ere askoren egunerokoan dago droga. Gertatu zena berreskuratzearrekin batera, egungoari ere heldu nahi izan diozue?

Euskal Herrian oso erraza da edozein droga atzematea. Entzuten da heroina berriz sartu dela hainbat lekutan, adibidez. Mamuak hor dira beti, eta gaiak atera ezean, berriz gertatzea posible da. Hau ez da zerutik erori den zerbait: sartua izan da, nahitara.

Zuen obrak bereizten dituen ezaugarrietako bat da talde guztia gaiaz ahal beste elikatzeko



GUILLAUME FAUVEAU

konpromisoa: liburuak, filmak... Bakoitzak hortik berea destilatu eta hortik sortzen hastea.

Bai, eta oso garrantzitsua da hori. Oraingoan, aipatzekoak dira Justo Arriolaren *A los piel del caballo* liburuak, [Ekaitz Goienetxearen] *Zaldi mamarroa*, [Uxue Alberdiren] *Jenisjoplin*, prentsa artikulua ugari... Baina gu ez gara kazetariak, soziologoak. Antzerkilariak gara, eta material horretatik ahal den haragi gehien ateratzea da gure lana, hurbiltzea; pertsonak baitira hori bizi izan dutenak.

Beti Artedrama, Axuti! eta Dejabu, baina, obratik obrara, aktore talde ezberdin bat biltzen duzue. Transmisioari lotuta dago hori. Hiru talde gara, hiru lurraldetan, eta elkarrekin pentsatu behar dugu zer den ezinbestekoa orain plazara ateratzea. Aldi berean, hori beste aktore eta sortzaile batzuekin konpartitu nahi dugu, zeren ondotik horiek eragingo dute euren inguruetan, eta sortuko dute konkurrentzia bat, aniztasun konpartitu bat. Obra bakoitzarako aktoreak bilatzerakoan, hiru konpainiak daude beti oinarrian, eta gero intuizioekin jokatzen dugu, beti irekita.

Obra honen xedeetako bat gazteengana heltzea dela diozue. Guretzat, inportantea da euskal gazteriak ukan dezan bere lekua

antzokietan. Beraz, behar da pentsatu forma bat, gai bat haiekin lotzeko. Jendea oro har gaztetan da hasten drogarekin erlazionatzen. Baina ideia ez da erratez drogatzea ongi dagoen edo gaizki. Ez da hori gure problema. Droga

«Antzerkiak, arteak, egin dezakeena zerbait urratzea da, zauriak berriz josi ahal izateko, usteltzen utzi gabe»

beti behar izan dugu; nonbaiten izarrak besarkatu ahal izateko, beste norbait izateko, norbere burua berriz ezagutzeko. Problema da hori nola kudeatzen dugun; zeri lotua den, zer oihartzun duen gure historian, eta nola hitz egiten dugun honetaz. Biziki inportantea da komunitate bezala honetaz pentsatzea, eta antzerkiak, arteak, hor egin dezakeena zerbait urratzea da, zauriak berriz josi ahal izateko, usteltzen utzi gabe.

Estetika ilun bat ikusi dugu oholztan. Metalezko xafak, ispi-luak, gaua, aktore guztiak etengabe daude oholztan. Nola planteatu duzue alde artistikoa?

Zerbait oso sinplea aurkitzen saiatu gara. Korua beti taula gainean agertzea izan da oinarrietako bat; euskal antzerkian zein greziar antzerkian beti badira ko-

ruak, herria errepresentatzen duten talde multzoak. Behar genuen hori, eta behar genuen molde bat atzemateko zertaz ari garen: aipatzen dugun gaia ez da tabu bat, baina izkinean uzten den gai bat da. Beraz, saiatu gara hainbat izkine sortzen bi xafarekin. Eta berdin ispiluekin, agerian uzteko normalean erakusten den gai bat da. Beraz, saiatu gara hainbat izkine sortzen bi xafarekin. Eta berdin ispiluekin, agerian uzteko normalean erakusten den gai bat da. Beraz, saiatu gara hainbat izkine sortzen bi xafarekin. Eta berdin ispiluekin, agerian uzteko normalean erakusten den gai bat da.

Emanaldi zerrenda luzea iragarri duzue; tartean, lau egun segidan Angelu, bost Donostian... Aurreko lanen arrakastak ireki dizue bide bat?

Hiru talderen lana, sarea eta ekoizpena batzuek ahalbidetu du, hori batetik. Baina uste dut badela konfiantza marka bat ere, lan luze baten ondorioz lortua. Eta seinale on bat ere bada, ez bortsaz gure lanarekiko, baizik errateko Euskal Herrian posible dela euskal antzerkitik bizitzea. Beti erratan digute Hegoaldean egin behar dela bi bertsiotan, euskaraz eta gaztelaraz, eta Iparraldean euskal antzerkia edo frantses antzerkia egin behar dela. Hau bada dei bat esateko: «Hemen bada jendea, bada sarea, bada egite jakitatea; orain ea egiten dugun zerbait serioa, gure herriak merezi duen kultura bat».